2014ko urtarrilerako 2. mailako ariketa berezia

<u>Hirigintza I: inguru fisikoa</u> (2. deialditik aurrera) eta **<u>Hirigintza: sarrera</u>** (2003ko plana)

PLAN PARTZIALA ASTIGARRAGAKO 12. HIRIGINTZA ESKU-HARTZE EREMUKO (MENDIAUNDI-ANIBAR) ZATI BATEAN

Astigarragako 2008ko Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko 10,5 hektareako 12. HEEan (Mendiaundi-Anibar) zati bat mugatu da —beheko irudian, gorriz— hilerriaren ondoan, zeinetan, ikasleek, banaka, hektarea erdiko sektore txikiago bat mugatu beharko duten.



0,5 hektareako sektore txikiago horretan, ikasleek hurrengo hirigintza-parametroak beteko dituen Plan Partzial bat antolatuko dute:

- Etxebizitza-erabilera izango da nagusi (komertzio-lokalak eta bulegoak ere egin daitezke: ikasle bakoitzak erabakiko du beharrezkoa den kopurua). Etxe mota ezberdinak egin daitezke (familiabakarrak, familianitzak…). Altuera ez dago mugatuta (bakoitzaren sen onaren arabera mugatu).
- Ekipamendu publikoak ez diren eraikinen lurzoru-mailatik gorako eraikigarritasun berria: **1,5 m^2(s)/m^2(l)**. Komertzio edo bulego gehiago egiten bada, etxebizitza gutxiago. Sotoen eraikigarritasuna ez da mugatzen (hala ere, gehiegi egitea ere ez da komeni).
- Sektorearen muga argi adieraziko da.

- Argi definituko dira bide-sare berria, espazio libre publikoak eta partzelak. Proposatutako bide-sare berria ganoraz lotuko da inguruan jada existitzen denarekin, loturak sektoretik kanpo egon arren.
- Partzela batean auzo mailako ekipamendu publiko txiki bat txertatu beharko da (erabilera eta neurria zehazteko, jada existitzen den eredu bat erabili daiteke, iturria aipatuz).
- Kaleetaz aparteko espazio libre publiko bat —gutxienez— diseinatuko da (plaza edo berdegunea; edo biak), gutxienez arearen azaleraren % 15ekoa. Espazio publiko gisa kontsideratzeko, gutxienez 30 m-ko diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izango da.
- Etxebizitza-tipo nagusiak azaldu beharko dira (jada existitzen diren ereduak erabil daitezke, iturriak aipatuz).

Hurrengo informazioa emango da, nahi den plano kopurua osatuz (gogoratu hobe dela plano gutxi baina osatuak egitea):

- Kokapen-planoa, lotura berriak adieraziz[1].
- Kalifikazio xehea: bide-sarea, espazio libre publikoak eta partzelak adieraziko dira, eraikinen lerrokadurarik gabe (edo, hobeto, eraikinak leunki edo marra etenekin adieraziz). Partzela bakoitzaren erabilera xehea adieraziko da.
- Lerrokadura-planoak (derrigorrezkoak, gutxienekoak, gehienezkoak…): sotokoa, behe-solairukoa eta oinplano tipokoa.
- Sekzio orokorrak (kota nagusiak eta mailak adieraziz).
- Eraikin-tipoak (etxebizitzak eta ekipamendua): oinak eta sekzioak, iturriak aipatuz.
- Datu orokorren taula (eremuaren azalera, sistema orokorren azalera, espazio libre publikoen azalerak, partzelen azalerak, eraikigarritasunak…).
- Osagarria den edozein informazio (bolumetria adierazteko 3Dak, maketa-argazkiak…).

Ariketa banaka egingo da. Emaitza paperean din A-1 formatuan (din A-4 formatura tolestuta) eta CDan (PDF edo JPG formatuetan) emango da.

Urtarrileko dagokion hirigintzako azterketaren hasieran emango da.

Donostian, 2013ko irailaren 29an

Irakasleak: Bixente Taberna eta Unai Fdz. de Betoño

[1] Kartografia digitala www.gipuzkoa.net webgunean eskuratu daiteke (topografikoa zein katastro-partzelarioa).